

F UNTSEZKO B ALIABIDEAK

Gure jarduera egin ahal izateko, ondorengo baliabideak behar ditugu:

BALIABIDE FISIKOAK

- **Alokairua:** Oiertzunen kokatuta dago gure industria-nabea. Bi solairutan banatuta dago: beheko solairua, 630m² erabilgarri dituena eta solairuartea, 140m² neurtzen dituena. Prezioren aldetik, aipatzekoa da alokairua 900€/hilekoa dela.




BULEGO NAGUSIA



- **Tresneria, aparatuak:** Bulegoetan lan egin ahal izateko, [2 ordenagailu](#) erosiko ditugu, bulego nagusian egongo direnak. Gainera, bertan [inprimagailu](#) bat jarriko dugu, beharrezkoak diren planoak, fakturak, eta abar paperean izateko. Altzariei dagokienez (mahaiak, aulkiak, armairuak eta apalak, esaterako), ez ditugu erosi behar, pabiloia alokatzean bertan sartuta daudelako.
Bukatzeko, [makina bat](#) erosiko dugu, bezero batek bere etxean duen leihoa moztu nahi izatekotan, egin ahal izateko. Era berean, kristala prentsatu ahal izateko balioko du.

BALIABIDE INTELEKTUALAK

Gure enpresaren publizitatea egiteko eta zuzenean bezeroekin harremana izateko, Instagramen kontu bat sortu dugu (@mbss.balder). Modu honetan, haien esperientzia eta iritzia (produktuarekiko, zerbitzuarekiko, etab.) emateko aukera ahalbidetuko du. Gainera, bezeroen *feedback* guztiak aintzat hartuta, hobekuntzak egiteko aukera izango dugu.



GIZA BALIABIDEAK

	NEREA	HENAR	HAIZEA	IKER	ENPLEGATU 1	ENPLEGATU 2
ZEREGINA	Plaka bakoitzaren diseinua, osagaien neurketa eta enplegatuen arduraduna	Plaka bakoitzaren diseinua, osagaien neurketa eta kalitate-kontroletaz arduratu.	Finantzien arduraduna	Marketinaren arduraduna	Plaka sortu: materialak galdatu, forma eman eta plakaren geruza bakoitza montatu	Plaka sortu: materialak galdatu, forma eman eta plakaren geruza bakoitza montatu
KOSTUA					1.600€	1.600€

Hasiera batean, enpresa sortuko dugunok ez dugu soldatarik jasoko. Izan ere, posibleak berrinbertituko ditugu enpresan bertan eta produktuan hobekuntzak egiteko.

FINANTZA BALIABIDEAK

Gure inbertsioak aurrera eraman ahal izateko, ondorengo bideetatik lortuko ditugu finantza baliabideak:

Bazkideok 4000€-ko ekarpena egingo dugu eta bankuari 15.000€-ko mailegua eskatuko diogu.

Hasierako kapitala, ezinbestekoak diren alokairua, tresnak eta materialak erosteko erabiliko dugu.